

## KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua gauzatzeko hainbat zerbitzu beharrezkoak izango dira, kostu bat suposatuko dutenak. Hauek bi ataletan desberdinduko ditugu: hasierakoak, eta jardunekoak. Azken hauetan, finakoak eta aldakorrak ere definituko ditugu.

Hasteko, hasierako inbertsioa definituko dugu. Programatzaileak 250€ euroren truke aplikazio osoa gauzatzeko digu. Gero, mantentze lanak egin ditzan, edo funtzio berriak sartu nahi baditugu hilabeteko 30€-ko kuota baten truke beti edukiko dugu erabilgarri programatzaile bera. Altzariak guk erosi beharko ditugu, eta ikusi dugunez 1000€ kostatuko digu behar duguna lortzea, hau da, lau lan mahai eta lau aulki. Horrez gain, 4 Macbook Air erostea erabaki dugu, bakoitza 1000€-tan beraz 4000€ guztira. Azkenik, ikusi dugu gure aplikazioa Play Storean jartzeko, gutako batek bere burua programatzaile bezala erregistratu behar duela. Hau, 22€-ko ordainketa bakar baten truke egin dezakegu.

### HASIERAKO INBERTSIOA:

KONTZEPTUA	KOSTUA
Altzariak	1000€
Programatzailea	250€
Ordenagailuak	4000€
Play Store	22€
<b>GUZTIRA:</b>	<b>5.272€</b>

Horiek dira hasierako kostuak, guztira 5.272€. Orain, jarduneko kostuei helduko diegu, eta hau egiteko bi taula sortu ditugu: batek, kostu finakoak erakusten ditu, eta besteak kostu aldakorrak.

Kostu finakoei dagokienez, UGGASA-ren bidez lortuko dugun lokala dugu lehenik, hilabetero 30€. Soldatak, 1000€ tan jarriko ditugu hasiera batean, beraz hilabetero  $1000 \times 4 = 4000€$  eta  $4000 \times 12 = 48000€$  urtero. App Store-en, urtero 99€-ko kuota ordaindu beharko dugu. Programatzailearen mantentze lanak eta aplikazioari egin nahi dizkiogun eguneraketak, 30€-tan ditugu hilabetero, beraz,  $30 \times 12 = 360€$  urtero.

Kostu aldakor bakarra publizitatea da, eta hilabetero gutxienez 300€ jarriko ditugu beraz urtean  $300 \times 12=3600\text{€}$ .

#### KOSTU FINKOAK:

KONTZEPTUA	HILABETEKO KUOTA	URTEKO KUOTA
Uggasa	30€	$30\text{€} \times 12=360\text{€}$
Soldatak*	$1000\text{€} \times 4=4000\text{€}$	48000€
App Store	-	99€
Programatzailea	30€	$30\text{€} \times 12=360\text{€}$
<b>GUZTIRA</b>		<b>48.819€</b>

\*soldatak irabazien arabera jaitsi edo igo daitezke, adibidez ditugun irabaziekin kostu guztiak ezin baditugu ordaindu hori jaitsiko genuke lehenik.

#### KOSTU ALDAKORRAK:

KONTZEPTUA	HILABETEKO KUOTA	URTEKO KUOTA
Publizitatea	300€ gutxienez	3600€ gutxienez

Kostu hauek kontuan hartuta, aurreikusten dugu lehen urtean behintzat, **57.619€** ordaindu beharko ditugula. Baina, kostu batzuk aldakorrak direla eta, urteko kuota aldatu egin daiteke.